

## Gipuzkoa europako batezbestekoaren gainera haziko da bigarren urtez jarraian

- *2017an Gipuzkoak %2,4ko hazkundera izango duela aurreikusten du Gipuzkoako Bazkondeak.*
- *2017ari begira Gipuzkoako enpresak europarrak baino baikorragoak dira, esportazioei eta barne merkatuari dagokionez.*
- *Gipuzkoako enpresen herenak lanpostuak sortuko dituztela aurreikusten dute.*

**Donostia – 2017ko Urtarrilaren 26a** - Gipuzkoako Bazkondeak Europako Enpresa-Perspektiben Inkestatik (50.000 enpresa baino gehiagoren iritzia jasotzen duen inkesta) ateratako datuek adierazten dute Gipuzkoako enpresak europakoak baino baikorragoak direla.

Inkestan parte hartzen duten Gipuzkoako enpresek 2017an izango dituzten emaitzak hobeak izango direla espero dute, esportazioei, baner merkatuari eta enpleguari dagokionez, europaren batezbestekoaren gainera kokatuz. Barne merkatuari begira, Gipuzkoako enpresen %45ak bere emaitzak hobetzea espero dute europako enpresen %33aren aurrean. %54ak berriz, euren esportazioak gehitzea espero dute europako %37aren aurrean, eta enplegu arloan, Gipuzkoako enpresen %33ak lanpostuak sortzea espero dute enpresa europarren kopurua %23a den bitartean.

### **Barne eta kanpo eskaerak sustatuko dute Gipuzkoaren hazkundera 2017an**

Gipuzkoaren hazkundera 2017an orekatua izango dela erakusten digute inkestan emaitzak, nahiz eta motelagoa izan barne merkatuari dagokionez. Dena den, europaren eta estatuen batezbestekoaren gainera haziko da. Hau dela eta, Gipuzkoako Bazkondeak 2017an Gipuzkoako ekonomiak %2,4ko hazkundera izango duela aurreikusten du, 2016rako ikusten zen %2,9koa baino baxuagoa.

Inkestan parte hartu duten enpresek espero dutenaren arabera, kanpo eskaeraren igoera barnekoa baino altuagoa izango da 2017an, nahiz eta honek eutsiko dion inbertsioak baina jokaera dinamikoago bat izanik. Enplegua sortzea motel antzera egongo da, baina kontutan hartu behar da inkestan parte hartu duten enpresen herenak lanpostuak sortzeko asmoa dutela, honek langabezi tasak beherako joera izatera bultzatuko duelarik. Fakturazioa handitzea espero duten enpresen artean industria sektoreak eta merkataritza sektoreak nabarmentzen dira. Merkataritza sektoreak, barne eskaeraren hobekuntza bat ikusten duelako eta industria sektoreak, aurrean izango dituen kanpo salmentak gauzatzea espero duelako.

Gipuzkoako enpresak susperraldi batean aurkitzen direla ikusten dugu, susperraldia gehien sendotu dueten taldean aurkitzen dira, europako batezbestekoaren gainera daudelarik batez ere esportazioetan eta barruko merkatuan.

2016an **barne merkatuan** egindako salmentei buruz, Gipuzkoako %53 enpresek 2015arekin alderatuz gehitu egin dituztela adierazi dute, hau bera esan duten enpresa europearrak %32a izan diren bitartean. 2017rako Gipuzkoak barne eskarian moteltze bat izango duela ikusten da, Europak ere hala izango du, nahiz eta Gipuzkoaren kasuan moteltze hori bajuagoa izango den. **Esportazioek** emandako emaitzetan ikusten denez, oraingoan ere Gipuzkoak Europak baino gehiago esportatu du 2016ean eta horrez gain, Gipuzkoak ere esportazio horiek gehitzea espero du. Euskadi mailan gehitze hau, %57 enpresek adierazi dute eta Espainian %55ek. **Enplegu** mailan, Europak 2016ko egoerari eutsiko dio eta Gipuzkoa zerbait baikorragoa izango da. Azkenik, **inbertsioari** dagokionez, Gipuzkoak 2016an Europak baino aurrekontu gehiago erabili du inbertsioko proiektuentzat, eta 2017an Europak bezalaxe maila honi eustea espero du.

**Euskal Autonomi Erkidegoaren** emaitzak Gipuzkoaren oso antzekoak dira. Euskal enpresak euren fakturazioa gehituko dutela espero dute, kanpo merkatuari esker, eta Gipuzko enpresen antzera %60ak inbertsio eta enpleguren maila eustea espero dute.

## **Nazioarteko ekonomia**

Munduko ekonomiaren hazkundera %3,1ean geratu da, nahiz eta beherako joera ikusten den ekonomia aurreratuetan baitbat. Brexitaren garaipenak eta Trumpen gobernu berriak ezinegona sortuko duten bi faktore izaten jarraituko dute mundu mailan.

EEBBek pentsatzen zena baino aurrerapen handiagoa izango du urtearen bigarren zatian, barne eskaeraren, enpleguaren eta soldaten hazkunde egonkor bati esker. Txina, %6,2arekin bere geldialdiari eusten dio eta euro gunea %1,5 haziko da, nahiz eta politika monetario malgu bat izan eta fiskalitate neurri lasaiago batzuk hartu barne eskaerak ahul jarraitzen du. Latinoamerikari buruz, berriz, 2016an lurra jotzea espero da kanpo eskaeraren ahultasunarengatik.

## **2016ko itxiera**

Joan den urteari dagokionez, Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako ekonomia %2,9ko hazkunderarekin itxiko duela ikusten du, 5.757 lanpostu gehigo sortuz eta 20.673 enpresa gizarte-segurantzari afiliatuta 2016ko abenduan (130 enpresa gehiago 2015eko epe berdinarekin alderatuz). Horrela 2013an hasitako joera baikorrari eusen jarraitko dio. Lan merkatua ere suspertuta ikusten da gizarte-segurantzari egindako kotizazioen igoeragatik (+2,0%) eta langabetuen kopuruaren jaitsieragatik (-10,1%), hau da, 8 kotizante langabetu bakoitzeko. Langabezi tasa %10,1ean itxiko dela ikusten da, Europar Batasunean izan den antzeko mailan. Bitartean, kanpo merkatuak, %1,6ko atzeraldia izan du eta Gipuzkoako sektore pribatuaren kredituak tasa baikorrak izan gabe jarraitzen du.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347